

Ikasi euskeraz

Aberri bakotzak —edo geienak beintzat— bere berarizko izkera dau. Guk euskaldunok geure dogu, antxiñatik datorkiguna, aurretikoengandiko euskera zarra.

Geurea dalako, gorde ta zaindu egin bear dogu; ederra dalako, ikasi ta itz egin. Aspaldian aldatz-bera doakigu euskera zarra. Zergaitik? Inguruetako erderak estu, artu dabelako; eta geu be, beroni eutsi ta lagundu bearrean, oso zahar ta ardurabako agertzen garealako. Ikasi daigun erroz ta itz egin biotzez, ta orrela ezta barreneraño amilduko.

Orretan zerbait zuri lagundu naita, ikasikizunok jarten dautzudaz.

Izkuntza guztietan, gramatika edo eliztiak erakusten dausku zelan itz egin. Egoki da, beraz, ondo berba edo itz egiteko, gai au arduraz ikastea.

Itz egiten dogunean, itz edo berbak aoz esaten ditugu. Zetako? Gauzak adi-erazteko, bururakizun edo pentsamuentak besteai agertzeko. Itzak, ba, zerbait agertzeko dira. *Ikasle, liburu* diñotanean, nik gazte bat darabil't gogo barruan, eskolan ikasi, idatzi, otoitz egin, kanta ta abar dagian mutil gaztea; bai ta paper, izki, marrazki, zenbaki ta abarrez osotutako gauza bat be. Ta bururakizun edo gogai biok alkar baturik, diñot: *Ikasleak liburuan irakurten dau*. Au esaera bat dozu. Ta gramatikeak, batez be, esaera bakotzetan atalak zelan atondu, bear diran lez zelan jarri, erakusten dausku.

Itz egitean, barruan pentsau edo nai doguna adi-erazten dogu. Ta iru eratara au: 1) *kiñuz* edo *ikurrez*; 2) *miin-otsez*, eta 3) *idatziz*. Eta erri batek bere asmu, gogai ta barne-naiak, miin'ez nai idatziz, azaltzeko erabilli oi dauan itz-sail ta erari *izkera* deritxogu; Euskal-Erriko izkerari, euskal-izkera, euskera.

Bai mintza-izkeran bai idatz-izkeran, itz edo berbak erabilli oi doguz; eta itzak elatz, izki edo letren bitartez osotzen dira. *Ama* itzean, esate baterako, iru elatz daukaguz: *a-m-a*.

Euskeraz elatz oneik ezagutzen ditugu:

1) bost lagun bako, *a, e, i, o, u*; ta ogeta iru lagun-bearreko: (a) *g, k, y, j, x*; (e) *d, t, ts, tz, tx*; (i) *b, p, m*; (o) *ñ, n*; (u) *r, rr, s, z*. Lenengo bosten aotsa lagundu barik jaurti oi dogu, aosa edegiaz *karrik, a, e, o*, indartsu, *ta e, i, aul* samar. Besteak, bost oneik laguntzat artzen dabela orrela itza osoturik.

Lenengoak eta bigarrenak, geienik beintzat, erderaz lez idatzi ta esan oi dira.

a) *g* izkiak beti dau aots edo soñu laguna: *ga, ge, gi, go, gu*.

g) *j*, toki askotan, prantsesezko *joli* lez beste askotan, Markiña aldean esaterako, soñu gogorra dau: *joan, etorri jat*.

k) *x* au irautezko gogorra dogu, miin'esatean aizea zurristu batetik ba'letor lez *xuringo, ixillik*.

y) *ts* ta *tz* bikiak, aoz esanik ikastea obe; ez dira iñundik be bardiñak, naita Bizkai aldean larregi banatu ez: *Atzo ta atzo* ez dituzu bat. *Ts* aotsa sortzeko, *g* letagin ondoak miin-erpiñez jo bear dogu *tz* aterateko, barriz, miin-ertzez ikutu erre-agin sakona. *Tx* be ao-ukaldi bates esaten da, espain'erazko *ch* ta prantserazko *ch* lez.

j) *d, t* gaiñetik marra txikiz bustiak itanoka darabilguz: *bildur, maite zaita*. Letra biok, marra barik, bi hider jarri be, erabilli daikeguz: *ttipi, kuttun*.

x) *ll, rr*; izki biok erderazko *ll* ta *rr* adierazten dabez.

d) *z* espain'eraz baiño bigunago da prantseraz; bear dan lez mingatu edo esateko agin ta miin artean dardaratu. Ta idatzeko rakoan, kontuz banatu *s* ta *z*: *gazte, gaitz, gizon emazte, atzo; sakon, atso, ostu, ostu*. *asi* beste. Bai ta arduraz erabilli: *asi ta asatu sartu ta zartu esi ta ezi*.

ts) *r* ren azkena, ia beti, gogorra da *samur samurra*. Baiña *ur-ura, zur-zura, ger-alogera, nor-norena, zer-zerena* bigunago dozuz. Euskeraz ezta itzik *r* rekin asto erderatikoai *a* edo *e* bat jarten yake: *Errroma*.

(Urrengoan geiogo)

Elizti edo gramatikeak, berari dagokion elburu-saillari dakioia, esaerak eratu ta osotzen ditu berariaz; oneitako bakoitza, barriz, ataltxo bereziz egin daroagun ezker, eurok egoki jarri ta zuzen erabilten jakin bear da, ondo mintzatu nai ba'dogu beñik-bein.

Esaera edo esaldi bakoitzean, nai luze nai labur, ataltxo asko sartzen dira. Zenbat? Zortzi bai, «Orixe»-ren iritziz. Ona: 1) Izena; 2) izen-laguna; 3) izen-ordea; 4) aditza; 5) aditz-laguna; 6) lokarritza; 7) asperen-itza, ta 8) aldaska edo izki laguntzaillea.

Bakoitza banaka inguru-minguru ikusi ta aztertzer orduko, guztiok batean alkargandiko zer-ikusia azaltzea ondo deritxot. Orrela egiñik, izkuntza ikastea beti be errezago yaku.

1) **Izena.** Izena dogu erro ta oiñarri edozein ele edo izkuntzatan, berez bai da ta dirau, iñori ez ezerri erantsi bage. Esaterako: **gizon, zugatz, mendi, margo, maitasun, Peru, Berriz;** oneik iñoren edo ezeren laguntza barik dirauskue zer-

bait, nortasun bat, izatasun bat; berez dira ta dirave. Ta eurotatiko zerak, gizaki naiz gauza soil, zer-bait dabe ta zer-bait diñoskue.

2) **Izen-laguna.** Sarri askotan, baiña, laguna damotsagu izenari. Zetako? Berari dagokion gaitasun edo doai bat adi-erazteko. Gogora **neska** bat; maratz, zoli ta edozeiñi laguntzeko beti gertu daukaguna; ta berez diñogu: **neska ona** da; gauzak ulertzeko erreztasun aundia dau ta diñogu: **neska argia** da. Beraz, **neska** izena dogu ta **ona**, beronen doai bat. Era onetako izenai izen-laguna deritxegu, laguntzaille diralako. Bere ez dira ezer, baiña aritzari untza lez izenari dautsela, onen gaitasun bat adi-erazten dauku.

3) **Izen-ordea.** Itz bardin ta antzekoak ez doguz beti erabilli bear, esakia ezti ta oskidetsu izan daiten: ez litzakigu, ba, eder izen batzuk askotan ber-esatea. Izenaren orde ez erabilli daikeguz beste itz batzuk esate baterako, aitak eta amak dabe semea; onek oster a lotsa begirapena dautse. **Onek** izen-ordea da; **au, a, berau, arek** eta abar izen-orde diranez.

4) **Aditza.** Esaeretan auxe iñoiz palta ez dana; edo agirian, edo ezkutuan, naiñon daurkigu, aditz bako esaerarik ez dago ta. Adierazo, barriz, jazo edo gertakari bat adierazten dau; adibidez, **ba-nator** diñodanean, neu naz natorrena, aditz orrek neure etorte edo etorraldia, neure oraingo jazoera edo gertakaria adierazten dausku. Bardin **banabil**, **ba-zoaz**, **ba-nentorren**, **badakart** eta gaiñerantzekoak be.

5) **Aditz-laguna.** Aditzari (verboari) bere aldetik, jazo edo gertakarien zertzelada ta zeaztasun bat adierazteko, laguntzaille bat emon oi dautsagu. Esaterako: **arin** noa, **ondo** dakust, **alperrik** nabil; **arin**, **ondo**, **alperrik** eta olako itzak aditz-lagun doguz.

6) **Lokarri-itza.** Itzak jarei ta bakar ez darabilguz, geienez beintzat, alkarren artean loki bategaz lez korapillotuta baiño. Aita ta semea; etxean izan naz, **baiña** ez dot ama bertan aurkitu; ez dot Txomin ikusi, Peru **baiño**. Ta, **baiña**, **baiño**

ta onakoak lokarri-itzak dira, esaterak alkarren artean lotzen dabiznak.

7) **Asperen-itza.** Zer-edo-zer arrigarri dala-ta, biotz-min gareala-ta, zerbait ustekabe jazo dala-ta, gure barren giroa erdi nastua egon oi dalako, arnas-goraka, asperenka, albetan lez itz dagigu. Ta orduan, igarri barik urtendako gure aotiko oiu ta alakoai asperen-itzak deritxegu. Esate baterako: **ene bada!** **gero!** **arren!** **leku!** ta abar.

8) **Aldaska** edo izki (letra) laguntzaillea. Lokarri itzai ta asperen itzai izan ezik, beste guztiai, bai aurretik bai atzetik, eta aditzari erdian be bai, aldaska, euskai edo izkia —aurrizki, artizki, atzizki— ezarri daikeogu. Adibidez: Txakur-a, gizon-ari, nire-tzat, mendiko ber-esan, ta abar.

Euskera, geien bat erantsi-izkuntza dogun ezkerro, atzizki (sufijo) oneik batez be, oso garrantzi aundikoak dira.

Izenta

Izenak, izadiko (munduko) sorkari bat, berez izatea dauan zer-bait —nor bat edo gauza bat— adierazten dauku; esaterako, **Pe-ru, etxe, zurgatz, bel**; izen guztiok norbait edo gauza bat begi aurrean jartzen daukue.

Izen-mota edo klase gaitenak, da-nak ezik be, lau sail aunditan za-ritu gaitenak: **izatezkoak, jatorriz-koak, adierazkoak** eta **alkartzez-koak**. **Onak, ostera, era berean,** auren zatiak dabaz.

1) **Izatez, norziak, ots, Txo-min, Eduene,** nor bat, pertsona bat adierazten dabaz; **gizon, txakur, be-dar'ak** izate edo endu-sail bat.

2) **Jatorriz, sortzezkoak, ots, ur, gar, soil** ta abar, eta **eratorriak**, (deribaduak), **edertasun, girata-sun** eta antzerakoak.

3) **Adieraz, bizidunak, ots, ama, seme, otso;** ta **bizigeak, au-da, eguzki, zefai, arri**. Bizidunak eta bizigeak ez dabaz arizki edo sufijo bardiñak artzen, onela bai-

ñak seme-a-raz, seme-a-gara, seme-a-gandik; mendiko, mendiko-mendi-ra, mendiko-roner, eta abar.

4) **Alkartzez, bakanak** (piseak), **ots, arri, idi, kare;** ta **alkartuak, Euskal-arri, idubostan, karobi,** ta onela antzerkoak.

Sailketa onetako itz nai izatez batez be sorkari bizidunenak, eta zain mota edo klase adierazten itz eta izen bardiñak dirabiltzen adibidez: **etxe, baso, illargi, Ba-donetan, afari be, auren izate be-razia** —ar nai eme— adierazten ba-dira itz ezbardiñak, esate be-arako: **bel, idi, zaldi, beor; seme-amarte; anai, arreba**. Baiña gaitenik, eman be, onela egin oi dogu izen arrot edo soilari ar, arrot-danean, eta **eme, emea** danean, atz-kiak ezarri; adibidez: **txakur-a txakur-eme; katu-ar, katu-eme otso-ar, otso-eme**. Baiña zerki be rarizko ori markatzea nai izan ezik beti diñogu **txakur, katu, otso**. Emendik dakusgunez, euskeran e-daukagu beste izkuntzetan gramatikari buruz, sexo-bersiztea dala itz izan oi dabaz zailtasunik.

a) Izen mugatuek ozeala (o-
katzari dira: -k, -ek, -en, -engan,
-engana, -engandik, -entzat, -ekaz,
-ekin, -tik, -ra, -raiko, ta abar.

b) Mugatuak ozeala. bat da
narr: -a, -aren, -ari, -arentzat,
-egatik, -egaz, eta abar; esko dira-

narr: -ak, -ai (-ak, -ari),
-akaitik, eta abar.

d) Toki-izenetan: -en, -an, -
-rantz, -raiko, -tik, -etara, -
-etarantz, -etaraino, -etara,
abar.

A. 9



Ikasi euskeraz

IZEN ALKARTUAK.—Era bitako itz eta izenak aurkitzen doguz izkuntzetan: soil edo bakanak eta alkartuak. **Txakur**, esate baterako, soilla dogu; **txakur-isatsa**, ostera, alkartua. Itz alkartu batek, egiz alkartua ba'da, baldintza oneik bete bear: 1) adimenean, lenen, gogoeta edo pentsamentu bi nasi ta ortu, ortik beste barri bat sortzeko; ta 2) gogoeta barria aditera emoten daben itzak idatziz ikurtu. Itz barri orrek adierazo daike gauza berezi bat, adibidez, **katanarru**; bai ta izan daike lendiko gogai biren alkartze soilla be, ots, **gazi-geza**.

Izkera guztietan zabalera ta garrantzi andia dabe itz alkartuak; baiña batez be, ezagunen diranetatik, sanskritoz, grekoz, doitxeraz ta euskeraz, erreztasun eta edapen ezin esan alakoa dabe. Gure euskeran egoki alkar buztartu ta eurrerz darabilguz olako itzak, latiña sort-oe daben gure alboetako izkuntzak baiño jori ta ugariago bait-dogu orretan.

Itz alkartze au iru eratan, beintzat, egin daikegu: 1) izan-izen bi buztartuaz; esaterako: **eper-txakur**; 2) izan-izena ta izen-laguna

alkartuz: **buru-motz**; ta 3) izan-izena ta aditz-izena bateraturiki: **okela-jale**.

Izen-buztartze au ez dogu euskeraz edozelakoa, uts egite edo gabetze bat baiño. Eta uts egite, kentze edo gabetze au askotara egin oi dogu. Ona:

1) Lokarri-itza, izenak alkarren artean lotzen dabezana, ots, **eta** edo **ta**, jan edo kendu daroagu sarri, ta ortik sortzen dira izen alkartu asko; esate baterako: **senar-emazteak**, **aita-semeak**, **neba-arrebak**, **neska-mutillak**, **senarra** ta **emaztea**, **aita** ta **semea**, **neba** eta **arriba**, **neska** ta **mutilla**'ren orde.

Alan be, lokarri-itzez baturiko edozein itz ezin alkartu: **nik** eta **zuk**, ezin esan **nik-zuk**. Kidetasun apur bat euki bear dabe alkarren artean, eta kontrakoa be bai goienez: **ar-emon**, **sal-erosi**, **jatsi-igon**, eta abar. Buztartzen diranak izenak baldin ba'dira, aurkako edo ostezko ori ez dakusgu ain argi; kidetasuna bai, ostera: **Jaun-andreak**, **senar-emaztegaiak**, **erre-egoziak**, **eskatu-eskiñiak**, **ate-leioak**, **atz-begiak**, **ur-ogi**, **mosu-belarri**.

2) Beste batzuetan, **-dun** atzizkiak uts emoten dau; esaterako: **buru-andi**, **begi-urdin**, **ule-zuri**; **buru andidun**, **begi urdindun** eta **ule zuridun**'en ordez. Oso ugariak oneik. Ba-dira beste batzuk **-ko** alboratuz sortzen diranak, geienez banako bat artzen dabela aurre-sustraitzat; adibidez: **amarratz** (amarauna), **amar** atz edo anka-koa; **bostortz**, bost ortzeko area; **laubegi** betaurrekoak darabillezanez ezarritako goitizena; **lauburu**, lau buruko zerbeit; **zazpiosto**, zazpi osto edo orriko landara.

3) Beste askotan, gure izen lotuetan kentzen dana itz-jokuko elebururen bat izaten da: **mendi-oïña**, mendiaren oïña; **ate aurrean**, atearen aurrean; **aitordea**, aitaren orde; **etxe ostean**, etxearen ostean; **gautxori**, gabeko txoria; **gizalan**, gizonaren lana; **urte-buruan**, urtearen buruan.

4) Ba-dira oraindik beste itz alkartu batzuk, esatera osoa ixillik gordetzen dabena: **giltzarri**, marko baten giltz izateko arria; **satsorra**, satsa ekartearen artzen dan nekea; **odei-gari**, odeiak uxatzearen emoten dan garia; **egur-jana**, egurra etxeratzearen emon oi dan jana; **baru-txistua**, baraurik atera oi dogun txistua.

5) Azkenez, edozein izkuntzetan nabari denez, gabetze ori bako

itz alkartuak be ba-dinugu, or, za, rata - itzak; oso ugariak auzki, kiño m artzen dabe oneik tames, baita iñoz b ta p be. Ora adibide batzuk: **andi-mandiak**, **autu-mautuak**, **arteka-marteka**, **asi-masiak**, **azur-mazurrak**, **esamesak**, **illun-nillunka**, **ixil-mixilka**, **keko-meko**, **sorki-morki**, **txutxu-mutxu**, **lira-ra-bikura**; **zikirri-bakarra**; **tañan-pitean**, eta abar.

Beste batzuk elatz edo bokal traldatzen dabe: **bilin-balanka**, **di-bi-danba**, **kikili-makala**, **kimikimiaz**, **klin-klan**, **txipli-txapia**, **itakata**. Ezagun doguz oraindikorren beste izen-batze batzuk balaña gaurko naikoa.

Eta zelan idatzi izen alkartuak? Biak bat egitiek, ala marra tük gai soil biak banandirik? Azken onela: «Itz alkartuak idatzeko kabiderik egokiens au dala da txat: itza bere gai beifienetan bait aldatua izan ba'da, bera idatzi soilia ba'itiz lez: **Euskaler basabide**, **sutondo**, **aitorde**, **artarav...** Baiña itz edo iruko bai gai beifienak ezetan aldatu ba dagoanean, banandu egituz m rratxo batez: **bese-bular-egun** **tean**, **Mendiburu'k ditortez** (Or itz., I, 22-5).